

Onddoekin ondo

BASOA sekulako janari ekoizlea eta berebiziko biltegia da. Bertan “hartu eta jan” da lelo zabalduena. Sarrienik, hartzea da arazoa. Basotar ugarik hartu ez, harrapatu egin behar baitu, eta maiz, harrapatu eta hil, baldin eta jan nahi badu. Landareak inor hil beharrik gabe elikatzen dira. Lurretik sustiratu eta airetik hostoratzen dituzte beharrezko gaiak. Zeregin horretan, era guztietako adiskideak dituzte. Onddoak dira ezagunenak.

Onddoek gure begietan arras ezberdinak diren bi zati dituzte: lurpekoa eta lur gainekoa. Lur gainekoa “fruitua” da, guk bildu ohi dugun perretxikoa. Lurpeko eta lurrazaleko hifa edo harizpiek basoko bizitzako urrats garrantzitsua osatzen dute: hildako hondar organikoak ostera bizitzaren ziklora bideratzen dituzte. Onddoek jariatzen dituzten entzimek abiatzen dute, berriro, sekula bukatuko ez den katea. Hondarrak desegin eta landareentzako elikagai bihurtu



Zizahoria (Cantharellus cibarius).

tuko dira. Elkarlanaren adibide da basoa. Elkarlana kaosean. Basoa iraupenaren eta biziaren oihana da. Batzuek aurrera egitea lortuko dute, eta beste batzuk hondar bilakatuko dira. Hondar hori ere beharrezkoa da. Onddorik ez legoke hondarrik gabe, eta, onddorik gabe, landararik ez.

Onddoaren eta landarearen arteko loturari “mikorriza” deitzen zaio. *Myces* (onddoa) eta *rhizos* (sustrai) hitz grekoek argitzen dute esanahia: sustraietako onddoa. Nahitaezko elkarlana osatzen dute:

onddoek jakiak eta ura, eta landareek karbohidratoak eta bitaminak, eskuratu eta eskaintzen dizkiote elkarri. Ezagutzen diren landareen %95ek mikorrizaren bat osatzen dutela diote. Elkarlan guztietan bezala, bakoitzak bere gustuak eta aburuak ditu. Onddoak landarea aukeratuko du, eta landareak, onddoa. Horregatik, belaze garbian ez dugu esnegorririk topatuko, ezta pagadian udaberriko zizarik ere. Bizi, esnegorria pinuarekin biziko da;

ziza, berriz, belarrarekin.

Hori da landatutakoan landare asko hiltzearen arrazoietakoa bat. Muintegian lur “antzuan” hazten da landarea, eta, onddorik gabe, ikaragarriko ongarriketak eta zaintzak behar izaten ditu. Lurrera aldatzen dugunean, sustrai soilak ditu, onddorik gabe... Eta aparteko zaintzarik gabe... Gero eta gehiago erabiltzen dira onddoak landare ekoizpenaren lagungarri gisa. Merkeago eta landare hobea. ■



Tartikua

PURGA ETA OSASUNERAKO ONA. Bakailoaren gibelko olioaren tankerako lana egiten duen akain- edo bakasta-belarrarekin egiten den errizino olioaren tankerakoa egiten da tartikuarekin, *Euphorbia lathyris*. Izerdia zuri-zuria eta lodia du. Erre egiten du, kontuz hurbildu ezpainetara edo begietara...

Hortik etorriko zaio ezaguna egiten duen berebiziko sona: satorrak eta satainak uxatzen ditu. Tartikua dagoen baratzean sartuko den satorrik ez da. Batzuek ikaragarriko lanak hartzen dituzte: estraktua kendu, eta hartzitu ondoren sator-zuloetan jartzen dute. Beste batzuek tartikuaren kimu berriak ebaki eta bertan sartzen dituzte. Nire iritziz, tartikua bera baratze bazterretan izatea da onena. Baratzean lurpetik sartu nahi duenean, satorrak sustraiak topatuko ditu eta haiek ere hozkadaka edo aztarrika



JAKOBA ERREKONDO

hausten dituenen erre egingo du. Nik behintzat, etorritako bidetik laster alde egingo nuke.

Argazkian tartiku landarea, loreontzian, Lekeitioko Usotegiko azokako saltoki batean. ■